

# Prest!



BERBETAN: **IMANOL OROKIETA** SOZIOLOGIAN GRADUATUA

ERREPORTAJEA: **MAMBO EGINEZ INDEPENDENTZIARA!**

BARKUA: **ZAINTZEKO ETA ZAINDUAK IZATEKO, BIGARRENEN**

8-259-260-261-262



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



# Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

# aurkibidea

Itsaso Larramendi Elexgaray - Nerea Cubillo Urkizu		<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
Jose Márquez		<b>Gurera etorriak</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b>	<p>MAMBO EGINEZ INDEPENDENTZIARA!  <i>Hirugarren edizioz egin dugu MAMBO deustualdeko gazteok. Ohitura bilakatzen ari da Matxingorri gazte konpartsak antolatutako hitzordua. Deustuko, San Inazioko, Arangoitiko eta erriberako gazte independentiston bateragune da konpartsak antolatzen dituen egitasmo desberdinak. Ikasturtean zehar zein jai herrikoien bueltan, aisialdi eta kultur eskaintza alternatiboen bidez, amesten dugun balore eraldatzaileetan oinarrituriko Deustualde eta Euskal Herri askea aldarrikatzen dugu.</i></p>	<b>6</b>
	Intxixu Ikastola		<b>Eskolak</b>
	Deustuk, anexoari ez eta zentsurari iskin (1924)		<b>Behin batean</b>
Mezu arrazisten arriskuez		<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b>	<p>IMANOL OROKIETArekin  <i>Imanolek gurera ekarri du "gentrifkazioa" bere Gradu Amaierako Lanaren bitartez. Bertan, hirietako zenbait gunetan gertatzen den gentrifkazio prozesuaren pasaia-aldaketaren alderdiaren inguruan mintzo da, Deustuko Erriberan gertatzen ari den gentrifkazioaren inguruan zehazki. Gerora kartografietara itzulitako Erriberako paisaia jaso eta Deustuko Erriberako Paisaia-Mapa ondu du bere lanean.</i></p>	<b>16</b>
	Bilboko lehen asmo anexionistak (1951)		<b>Irudiak berbetan</b>
<p><b>KULTURA</b> Azoka usaina</p> <hr/> <p><b>GREBA FEMINISTA</b> Zaintzeko eta zainduak izateko, bigarrenaz</p> <hr/> <p><b>NUTRIZIOA</b> Dietak? EZ. Bizitzak transformatzen ditugu</p> <hr/> <p><b>KULTUR TXOTX</b> Jon Intxaurrea eta Peru Irastorza Santxo</p>	<p><b>24</b></p> <p><b>barkua bete herba</b></p>		

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
 Tel: 94 447 10 42  
 Ramon y Cajal 42  
 Deustu 48014  
 bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Katalin Gaztelu

**Eredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Katalin Gaztelu

**Diseinua:** B05T

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01



**Itsaso Larramendi Elexgaray**  
Hiriaz eta beste

## Edertasunaz

Edertasunaren aurrean senidetatsuna indartu egiten omen da, zerbait ederra dela iruditzen zaigunean sentipen hori unibertatsala izango balitz bezala bizi baitugu: uste dugu edertzat dugun hori edonorentzat dela eder, ondokoaren kondizioa edozein izanik ere. Izan liteke alboan dugunak sentipen oso kontrakoak edukitzea, zinematik liluratuta atera eta lagunak aspertu egin dela esaten digunean bezala. Baina unibertsaltasun sentipen horrek omen garamatza zerbait gustuko dugula esatera baino, zer hori ederra dela esatera; gure ikuspegi partikularretik atera eta egi-uste bat sententziatzera.

Garabien isla Nerbioiko uretan, In the mood for love pelikula, guztia blaitzen duen arratseko argi larrosa, Cordobako meskitako zutabezko basoa, lore-sorta moztu berria mahaiaren

zentroan, Verde Prato eszenatokian, urrezko gari zelaiak, oreinaren agerpen iheskorra mendian.

Egin beza bakoitzak bere zerrenda; egizu zuk zurea. Eta orain, zerrendatu dituzun guzti horiei "zertarako" galdetuko bazenie, erantzunik ba al legoke? Zentzurik ba al du sikiera galderak berak? Carlos Liriak dioenez, horregatik beragatik da edertasunaren aldarrikapena duintasunaren defentsa, ezertarako balio ez duen edertasunaz gozatzeko baldintza materialak dituzten bizitzak nahi ditugulako.



**Nerea Cubillo Urkizu**

Zergatik onartu ezarri dutena?



## Dena kontrolpean

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentan (DSBE, RGI gazteleraz) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreran (BGDS, IMV gazteleraz) egon daitezkeen iruzurren berri emateko, Lanbidek postontzi bat abian jarri du bere webgunean.

Datuen arabera, aipatu prestazioetan jasotzen den iruzurraren ehunekoa %0,25 ingurukoa da, beste sistema batzuetan gertatzen den iruzurra baino askoz txikiagoa, alegia. Hala ere, baliabide gutxien dituztenak seinalatzea eta pobrezia kriminalizatzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak, eta ez da bidezkoa, DSBE jasotzea eskubidea baita.

Pobrezia pairatzen ari diren pertsonak gogaikarriak dira sistemaren "ordena" mantentzeko, eta hain zuzen ere, hori da hauek seinalatzen dituzten legeak aldarrikatzen jarraitzearen arrazoi nagusia nire ustez. Honako hau Eusko Jaurlaritzaren eskutik etorri arren, betidanik eskuinaren zein ultraeskuinaren eskutik zetorren diskurtsoaren antza handia du, izan ere garai batean sorgina, gorria, lesbiana, marikoia seinalatzeko taktikaren oso antzekoa baita.

Alternatibak proposatu beharrean, berriz ere kontrolaren birtartez, egoera prekarioan dauden pertsonak seinalatzeko eta epaitzeko hautua egin du Eusko Jaurlaritzak.



## Jose Márquez

**Jatorria:** Huelvarra

**Bizitokia:** Deustu

**Lanbidea:** ikaslea



### Zerk ekarri zintuen Deustura eta noiz?

2022ko irailean etorri nintzen Deustura; lehenago San Inazio bizi izan nintzen. Egia da itsasadarretik alde honetara dagoen eremua lasaiagoa eta erosoagoa dela bizitzeko, baina Deustuk aniztasun handiagoa du: bizitza unibertsarioa, komertzioak eta, aldi berean, Bilboko erdigunearekin oso lotuta dago. Aukera hobea da.

### Zerk harritu zintuen gehien etorri zinenean?

Gehien harritu ninduen hemengo bizimodua izan zen. Eguneko edozein unetan, batez ere etorbidean, beti dago jendea alde batetik bestera, dendak irekita daude... bizitza duela argi dago eta aktibo dago. Zaila da kaleak hutsik ikustea.

### Zerbait ezagutzen zenuen zonaldeaz edo gure kulturaz etorri aurretik?

Ez nuen ingurua ezagutzen, hemen-dik egonda nintzen, baina *de paso*. Kultura ere ez nuen ezagutzen. Orain ere ez dut askorik ezagutzen, eta uste dut benetan ezagutzeko hemengoa den norbaitekin eta kultura ezagutzen dudan norbaitekin geratu beharko nintzatekeela, adibidez, tomatearen gaia kontatzeko.

### Zeintzuk dira Huelva eta Burgosen artean somatu dituzun antzekotasunak eta desberdintasunak?

Egia da Huelva oso hiri txikia dela, eta Deustu, auzo bat izanda ere, nabari da hiri bateko auzoa dela, jende

asko dagoen metropoli handia dela. Antzekotasun bat ikusten dut: Deustu barruan jendea ezagutzen duzu, hiri txiki bat bezalakoa da. Jendea ezagutzen duzu, komertzioetako jendea, bizilagunak... Nabaritzen da oso bizitegi-eremua dela.

### Nolakoa izan da euskal gizartearen integrazteko prozesua?

Integrazio-prozesua nahiko ozan izan da. Auzoko edozein lekutatik minutu gutxitara hainbat denda dituzu eta jendearen harrera oso ona da, jendea hurbila da.

### Zer harreman duzu euskararekin?

Nahiko mugatua da, nahiko kulturala da, eta ez du zerikusirik nire jatorrizko kulturarekin, eta nabari dut dagoen aldearen talka. Zaila da eta ikasteko dedikazioa behar duzu, beraz, ez dut euskararen ezagutzarik, hitz solte batzuk eta adierazpenen bat baino ez. Hizkuntza oso bitxia iruditzen zait, eta denbora izango banu, eta agian premia pixka bat gehiago, ikasi egingo nuke. Baina oraingoz hemen nagoela ez zait premia hori sortu.

### Zer duzu faltan?

Bertako jendea eta familia gehien bat, baina edonora joaten naizela ere oso ondo egokitzen naiz eta nahiko pertsona lagunartekoa naizenez, orduan ez dut arazorik izan hemen jendea ezagutzeko.

### Zenbatero egiten duzu buelta etxera?

Hiru/lau hilean behin itzultzen naiz, funtsean Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporrak direnean. Batzuetan, beharbada, Bilboko jailetan hona etorri naiz, edo aurtengo zubian jaitsi izan naiz. Huelvak ez du aireporturik, beraz, Bilbotik Sevillara egiten dut hegazkinez, eta Sevillatik Huelvara autoz, eta itzuleran alderantziz.

### Gomendatuko zenioke Deustu zure hiriko norbaiti?

Egia da nire gradua Andaluziako 3/4 unibertsitatetan eskaintzen dela, baina nik hiriarekin nolabait konektatu nuen eta gustatu egin zitzaidalako etorri nintzen, zerbait transmititu zidan. Beste norbaiten ustez, erokeria izan daiteke. Deustu aukera zoragarria da eta beti ondo hartuko zaitu. Hala ere, ez dut uste guztiontzako zerbait denik, gogoia izan behar duzu.

### Oro har, nola baloratzen duzu hemengo egonaldia?

Oro har, bikaina eta oso positiboa da. Argi dago bizitza bera bezala, bolada onak eta txarrak ditugula, baina Deusturi dagokionez, guztiak irabaziak direla uste dut. Oso ausarta naizela pentsatzen dut hona etorri naizelako eta hemen ikastearen aldeko apustua egin dudalako, nire kasuan.



## MAMBO EGINEZ INDEPENDENTZIARA!

*Hirugarren edizioz egin dugu MAMBO deustualdeko gazteok. Ohitura bilakatzen ari da Matxingorri gazte konpartsak antolatutako hitzordua. Deustuko, San Inazioko, Arangoitiko eta erriberako gazte independentiston bateragune da konpartsak antolatzen dituen egitasmo desberdinak. Ikasturtean zehar zein jai herrikoien bueltan, aisialdi eta kultur eskaintza alternatiboen bidez, amesten dugun balore eraldatzaileetan oinarrituriko Deustualde eta Euskal Herri askea aldarrikatzen dugu.*

Testua eta argazkiak: Matxingorri gazte konpartsa

### Baina zer diogu MAMBO esatean?

Termino honekin bi esanahi ulertzen ditugu. Batetik, eskubideen aldeko borroka egitean. Botikazarreko ikasleek haserrea antolatu eta eskaileratan sentada egitea, bada mambo egitea. Baita, kaleak hartzean, mobilizazioetan, herri aske batekin amesten dugun ekimen bakoitza da mambo. Eta bestalde, nola ez, gazteok elkartu, jai herrikoia antolatu eta horrelako jaialdietan bezala dena ematea! Kantan, dantzatan! Gure aisialdian euskal kulturaz gozatzea ere bada mambo egitea!

Azaroaren 16an ospatu dugu aurtengo egitaraua. Done Petri plazan elkartu eta lehen ekin-tza "Euskal Herria antifaxista eraikitzen" hitzaldia izan da. Faxismoaren gorakadaren testuinguru honetan, gazteok diskurtso eta mezu erreakzionarioei aurre egiteko bide horriaz hausnartzeko tarte izanik. Ondoren, transmari-bibollo mugimendu harrotu eta plazak hartzeko helburuz "AyDrasmela" drag ikuskizunaren esukitik dantza eta kantuan ibili gara gazteak.



Giro paregabean ekin genion afarirari Deustu-ko Herriko Taberna barnealdean. Afari bat baino askoz gehiago izan zen iluntze artako magia. Aspaldiko lagun hori agurtu eta gazte berriak ezagutzeko aukera besteak beste. Postrea heldu bezain pronto, kantutegiak lagundurik, kantatzen duen herria ez dela inoiz hilko adierazi genuen.



**Mambo** eginez  
INDEPENDENTZARA

**Azaroak 16 larunbata**

**18:00 Hitzaldia** Done Petri  
"Euskal Herria antifaxista erakitzen"  
Nicole Zarrusta eta Aitor 'Nafiz'

**19:00 Drag ikuskizuna** Done Petri  
"Ay Dragmela"

**20:30 Ekitaldia** Done Petri

**21:00 Afaria** Deustu-ko Herriko Tabernan  
"Abesten duen herria ez da inoiz hilko" Alakastean

**22:30 DJ Xaukena Xauk** Gaztebasen

**Afarirako tiketak**

Deustu-ko Herriko Tabernan, Urtasor,  
Saborri eta/edo Formakari onenak izan  
beteko, uztartuko  
haserdi eta langabeteak 9C  
Langileak 10C

241116 **Deustu** **MAXINORRI**



Bukatzeko, gaztetxera jeitsi ginen gauari itxiera ematera. Jada deustun lagunak ditugun Zaldibarko Dj Xaukena Xauk bikoteak, musika elektronikoz girotu zigun dantzalekua.

Deustualdeko gazteok asko dugu esan eta egiteko, beste hainbat MAMBO ditugu aurretik. Antolatzen ditugun asanblada eta egitasmo desberdinetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dugu.

**Gora deustualdeko  
gazte independentistak!**

**MAMBO eginez INDEPENDENTZIARA!**








Argazki galeria





# PENTSAMENDU KONPUTAZIONALA ETA ROBOTIKA BULTZATZEKO PROIEKTUA

*Teknologiak azkar eboluzionatzen duen mundu honetan, hezkuntza egokitu egin behar da belaunaldi berriak XXI. mendeko erronkei aurre egiteko beharrezko tresnez hornitzeko. Horregatik, Intxixu ikastolan honen gaineko hausnarketa eginik, ondorioztatu dugu Lehen Hezkuntzan ere pentsamendu konputazionala eta robotikako proiektu bat bultzatzea funtsezkoa dela haurrak txikitatik prestatzeko.*



**Testua eta argazkiak:** Intxixu Ikastola


Pentsamendu konputazionala funtsezko trebetasuna da, hurrei arazo konplexuei modu logiko eta egituratuan heltzen irakasten diena. Arazoak deskonposatzea, patroiak identifikatzea, algoritmoak sortzea eta abstrakzioa aplikatzea barne hartzen dituzten jardueren bidez, ikasleek programazioaren mundutik haratago erabilgarria den pentsaera garatzen dute. Trebetasun horiek aukera ematen diete erronkei konfidantzaz eta sormenez aurre egiteko, bai buru-hausgarri matematiko bat konponduz, bai talde-proiektu baterako estrategia bat diseinatuz.

Robotikak ikaskuntza hau ikuspegi praktiko batekin osatzen du, non haurrek euren jarraibideei erantzuten dieten robotak eraikitzen eta programatzen dituzten. Esperientzia praktiko horren ondorioz, ikaskuntza zirragarriagoa eta dinamikoagoa izateaz gain, iraunkortasunaren eta pentsamendu kritikoaren garrantzia ere irakasten zaie. Robot bategi espero bezala funtzionatzen ez duenean, ikasleek arazoa aztertzen, ikuspegia egokitzen eta berriro probatzen ikasiko dute, erresilientzia landuz.

- Zein da robotak ihes egiteko behar duen sekuentzia?




- Zuek egindakoa eraginkorra da edo patroien bat errepikatzen da?



Gainera, trebetasun horiek aplikazio praktikoak dituzte hainbat arlotan. Medikuntzatik ingeniartzaraino, pentsamendu konputazionala eta robotika gero eta funtsezkoagoak dira. Ikasleak gaztetatik prestatzeak, herritar digital trebe ez ezik, beren ideiak mundu errealeko arazoetarako konponbide eraginkor bihurtzeko gai ere bihurtzen ditu.

Azken finean, proiektu honek buru sortzaile eta analitikoak sortu nahi ditu, etorkizuneko erronkei buru argiz eta segurtasunez aurre egiteko prest. Hezkuntzan egindako inbertsio bat da, emaitza iraunkorrak eta positiboak agintzen dituen.



## Mahai jokoak

### Hemen batzuk:

- [Moon inprimatzeko](#) (Argibideak)
- [\(Moon online\)](#)
- [Arqueros de Nand](#) (Argibideak)
- Block miners
- Robot repair
- Helados





# DEUSTUK, ANEXIOARI EZ ETA ZENTSURARI ISKIN (1924)

*Deusturen anexioa ez zen ebatzi joko-eremu neutral batean, diktadura baten botapean baizik. Ehun urte geroago, garrantzitsua da gomutara ekartzea nork eta zelan erabaki zuen Deustu desagertu eta Bilbora batu behar zela. Baldintza latzak izan arren, deustuarrek aurre egin zioten zanpaketari, azken unera arte.*

**INTERESES DE VIZCAYA**

**El tan debatido asunto de la anexión de Deusto a Bilbao**

ESTAMOS en la terraza del Café Inglés; es la hora gris en que la noche se acerca y envuelve con su penumbra la agonía de la tarde. El paseo del Arenal está pleoerico de gente que, en su estatismo, con las cabezas erguidas, fijas en el quiosco de la música, parecen fieles en devoción; y en verdad que es así. Este pueblo fuerte, de sentimientos profundos, lleno de emotividades, pueblo que adora el canto y la música como pocos, aguarda gozoso esta hora del anochecer en la que lo mismo el obrero con sus músculos cansados del labor cotidiano, que el financiero fatigado por el desgaste cerebral de los negocios, acuden al Arenal para recibir como bálsamo bendito el bienestar que a su espíritu deparan las melodías sublimes de la incomparable Banda municipal bilbaína.

Amado, el gran «reporter» gráfico, como otras muchas tardes, nos acompaña en esta hora amable, y nos muestra fotografías que excitan nuestra curiosidad periodística.

—Es un trabajo muy curioso e este que estoy haciendo ahora—nos dice—, y creo que sería interesante por tratarse de asuntos de verdadera actualidad diéramos esta información en Mundo Ilustrado; pero espere—prosigue Amado—, hacia aquí viene el promotor de estas fotografías...

**Hablando con el alcalde de Deusto.**

«Tenemos ante nosotros un hombre joven, fuerte, de facciones viriles, acusadas de un carácter franco y enérgico, difícil de vencer.

Amado hace la presentación.

—Don Marcos de Orueta, alcalde de Deusto—nos dice.

Y el señor Orueta, muy cordialmente, nos tiende su mano y nos expresa su satisfacción de poder charlar con nosotros, pues—nos dice—quiero aprovechar esta oportunidad para que diga usted en Mundo Ilustrado el atropello que se ha querido y aún se sigue intentando cometer con Deusto, valiéndose para ello el Ayuntamiento de Bilbao de toda clase de habilidades.

—Diga, diganos usted, señor alcalde, pues nuestra imparcialidad en este asunto nos permite recoger en nuestras columnas las razones de ambas partes en este palpitante asunto de las anexiones.


Y el alcalde de Deusto nos dice lo que transcrito casi taquígraficamente, leerá el lector.

**Dice el nuevo Estatuto municipal**

«El Gobierno es respetuoso con la realidad municipal, cualquiera que sea su forma e intensidad. Por ello no intenta suprimir Municipios, ni exige mínimo de población para que se constituyan otros nuevos.

«Cada Municipio, como consecuencia lógica de su personalidad jurídica natural, tiene derecho a administrar sus intereses de modo que su actividad nativa y sus energías se desenvuelvan en su propia vida y para sus fines propios.»

De estas ideas del nuevo Estatuto deducimos nosotros—nos dice el señor Orueta—, en el caso este de la anexión de Deusto, que hace desaparecer nuestro Municipio no es sólo antijurídico, sino que implica tanto como aniquilar la personalidad familiar, creando un estado de servilismo incompatible con las modernas teorías que abogan por el reconocimiento explícito de la autonomía municipal en su más amplia concepción; porque el pequeño, como el grande Municipio, cada uno en su esfera, tienen ideas propias, iniciativas particularísimas, dependiendo el desarrollo de su vida interior de las necesidades de sus vecinos, que son multiformes y distintas en cada uno de ellos, hasta el extremo de no hallarse,



Froneira natural donde se marca el límite entre Deusto y Bilbao. En la fotografía se vé que no es posible edificar por impedirlo el monte.

Testua: Hektor Ortega

1920ko hamarkadaren hasieran Alfonso XIII. aren erregimena endekatzen hasia zen. Berrezarkutzarena sistema ustela zen jaiotzatik, eta jendartearen aldaketek gero eta ageriago utzi zuten hala bere gezurra nola bere ezina. Langile mugimendua indartu ahala haren baitako joera iraultzaileek itzal handiagoa erdietsi zuten. Estaturik gabeko nazioak -batez ere Katalunia, baina baita Euskal Herria ere- iratzartzen hasiak ziren eta Espainiak gordin jokatu zuen. Bitartean, ostera, potentzia koloniala izateko ameskeria zita-

lari eutsi nahi zion, eta, beren-beregi Rif aldean, haien buruaren jabe izan nahi zuten berebereen aurka sarraski odoltsuak eragin zituen.

1923ko irailan Miguel Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea jo zuen industria-jabe handien eta, oro har, sektore monarkiko kontserbadoreen babesaz. Ez zuen monarkia ukitu, baina diktadura ezarri zuen, alderdi bakarrarekin -Unión Patriótica- eta erakunde parapolizialarekin -Somaten-. Ez zuen oztopo handirik aurkitu.

Bere lehenengo dekretuetako batek katalanaren eta euskararen erabilera publikoa galarazi zuen.

Aurreko hilabetean atal honetan ikusi genuen bezala, diktadurak udalak ere kontrolpean jarri zituen, bere esanekoak izendatuz alkate eta zinegotzi. Bilbon, Federico Moyua jarri zuten, itzal handikoa Madrileko gobernaren aurrean; Deustun, lehenengo Juan Jose Usparitxa, gero Cirilo Vallejo astebetez eta, jarraian, 1924ko apiriletik aurrera, Marcos Orueta.

Hemendik aurrera, Aritz Ipiña historialariaren ekarpenak hartu ditugu abiapuntu. Batetik, “No quisieron ser Bilbao” artikulua (sarean dago); bestetik, joandako urriaren 23an Bidarten eman zituen jakingarriak.

Kontua da Orueta, Jesus Gaztañaga udal idazkariaren laguntzaz, anexioaren aurkako borrokari lotu zitzaioela, bihotz eta arima. Garaipen txikiak ere eskuratu zituen. 1924ko maiatzean Espainiako Estatu Kontseiluak txostena kale-ratu zuen Begoñaren anexioaren alde baina Deusturen anexioaren aurka. Zorigaitzez deustuarrontzat, ebazpen hori ez zen loteslea. Urte hartako abuztuan, diktadurak batzorde bat izendatu zuen zirt edo zart egiteko anexionen auzian. Deustuk eta Begoñak ez zuten begi onez ikusi, batzordekideak Bilbon bizi ziren Estatuaren funtzionarioak zirelako eta, batez ere, batzordeburu Julio Etxague gobernadore zibila zegoelako. Etxague anexionazale sutsua zen.

Batzordeak irailean Deustu eta Begoñako zokondoak bisitatu zituen, ikusteko saneamendu sareak, osasungintza eta ur-hornidurak, besteak beste, zertan ziren, Bilbok argudiatzen zuelako herriok ez zirela gauza euren buruak behar bezala zaintzeko. Deustuk laster erantzun

zuen: Marcos Orueta alkateak, notario bat eta argazkilari bat hartuta, Abandoko Olabeagara eta Zorrotzara joan zen hango bizi-baldintzen lekukotza jasotzeko. Deustu baino askoz okerrago zeudela frogatu zuen. Hortaz, nekez argudia liteke anexioak Begoña eta Deusturen arazoak konponduko zituenik.

### Zentsurari iskin

Deustuko alkateak Bilboren argudio nagusietako bat deuseztatzen zuen bitartean, beste jokaldi ausart bat gauzatu zuen. Herriaren argudioak lau haizetara zabaldu nahi zituzten, baina diktadura zegoen. Eta diktadurak, zelan ez, prentsa kontrolpean zeukan. Zentsura zegoen anexioaren gaiaz informatzeko... Bizkaian. Hortaz, Deustuk “publierreportaje” moduko bat adostu zuen Madrileko Mundo Ilustrado aldizkariarekin. Irailean argitaratu zen. Bertan Abandoko Olabeagan ibilitako argazkilaria, Amado Ávila prentsa-argazkilaria alegia, eta Marcos Orueta alkatea ageri dira berbetan. Alkatearen esanak luze eta zabal jaso zituen aldizkariak. Batez ere, Deusturen anexioa legez kontrakoa zela argudiatu zuen, baita jendartearen oinarritzko eraketaren aurkakoa ere. Bidegabekeria hutsa, berba bitan.

Mugimendu trebeak eginagatik, Deustuko agintariek ez zeukaten prozesua geldiarazteko edo aldarazteko aukerarik. Urriaren 11n jakin zen Direktorio Militarrek izendatutako batzordeak Deustu, Begoña eta Lutxanaren anexioaren aldeko ebazpena eman zuela. Urriaren 29an Primo de Riveraren gobernuak, errege-dekretuz, anexioak agindu zituen. 1925eko urtarrilaren 1etik aurrera, Begoña eta Deustu desagertu behar ziren udalerrri gisa. Lutxana ere, Bilborako. Diktadurak bere nahia ezarri zuen, herriaren borondatearen aurka.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



Testua: Jone Gartzia Gerra

*Azkenaldian nabarmen areagotu dira kutsu arrazistadun mezuak San Inazio auzoko Facebook taldean. Kanean lapurretak ugaritu ei direla-eta, auzokideen erantzuna bazterketa eta miseria egoeran daudenak kriminalizatzea, polizia gehiago eskatzea eta auzoko segurtasun brigadak antolatzea izan da. Arazoaren erroa fokutik kenduta, gorroto diskurtso atzerakoiek zabal-zabalik uzten diote atea jendartearen faxistizazioari.*

Auzoko argazki zaharren artean nahasten dira kristal hautsia duten kotxeenak San Inazioko Facebook taldean. Galdutako txakur eta txorien irudien artean atzo indarrez egindako azken lapurretaren inguruko xehetasunak. Jendearen haserre eta neke mezuen artean aise hasi dira iruzkin arrazistak zabaltzen eta egoera iraultzeko zerbait egiteko beharra aldarrikatu dute hainbat erabiltzailek.

Arin-arin hasi dira hedatzen kale gorrian bizi diren pertsona arrazializatuak kriminalizatzen dituzten gorroto iruzkinak. Pertsona hauen miseria-egoeraren jatorria zein den ahaztu eta lapurretara zerk bultzatzen dituen alde batera utzita, kasik euren bazterketa justifikatzen amaitu dute eskatutako konponbideekin.

Batzuk poliziaren jarrera “pasiboa” kritikatzan dute, eta haren presentzia handitzea nahiko lukete gure kaleetan. Hain justu, miseriaren eta bazterketa sozialaren eragile den sistema kapitalista eusteko estatuak duen indar armatuaren presentzia areagotzea ari dira eskatzen. Beste batzuk, etsita, nahiago dute justizia euren gain hartu eta beren kabuz bete indar errepresiboen papera auzokide-patruilen bidez. Bat-batean, auzoko kontuak komentatzeko sortutako talde bat ideia faxisten hazitegi bihurtzeko bidean da, mezu erreazionarioen bidez jendarteak zeharo baztertu dituen horiek kriminalizatu eta arazo orenen erantzule egiten dituzten bitartean.

Ez da erraza egoera bideratzea, inori ez baitzaio gustatzen lapurtua izatea; baina, zinez ez zait horren zaila iruditzen begirada apur bat altxatu eta perspektiba handitzea, arazoaren erroa urru-

nago dagoela jabetu eta auzokideon erantzuna horren arabera antolatzeko. Lapurretak egiten dituztenen jatorria azpimarratzen duten mezu arrazista eta klasisten atzean hainbat ideia arriskutsu ezkututzen dira, hala nola migratzaileak direla “bertakoen” bizi-baldintzak okertzearen errudunak, horien aurka auzokideak antolatzeko beharra dagoela edo poliziaren presentziak handiagoa beharko lukeela. Jatorri desberdinetako auzokide langileon arteko etsaitasuna piztu eta fokua benetan eragiten gaituzten arazoetatik urruntzeaz gain —etxebizitza eskubidea kasu—, sinesmen horiek auzoan tentsioa, beldurra eta indarkeria handitu baino ez dute egiten.

Izan ere, ezin dugu ahaztu kale eta miseria gorrian biziagatik ere pertsona horiek guztiak gure auzokideak direla. Ezin dugu ahaztu egoera horretara bultzatu dituen gizarte-antolaketa eredu gu geu zapaltzen eta jazartzen gaituen eta berez biolentoa den sistema kapitalista bera dela. Ezin dugu ahaztu potentzia inperialistak direla kanpoan gerra eta pobrezia eragin eta egoera horretatik ihesean datozen migratzaileei atea ixten dizkietenak. Ezin ditugu ahaztu Bilboko udaltzainen eguneroko praktika xenofoboak eta manteroen aurka uda guztietan indartzen duten oldarraldia. Ezin dugu ahaztu klase elkartasunik gabeko auzo antolakuntzak langileon arteko etsaitasuna eta gure interesen kontrako borroka baino ez dituela sustatzen.

Langileon pobretzea gero eta handiagoa eta nabarmenagoa den garaiotan, azkar hedatzen hasi dira ideia atzerakoi eta faxistak gure inguruan. Krisi eta miseria egoerak ideologia faxistaren hazitegi bikaina dira. Ikusi ditugu pertsona



'Lo que no te cuentan de Donosti' talde erreakzionarioaren deialdiaren aurka egindako mobilizazioa. | Argazkia: Gedar.eus

migratuen aurkako manifestazioak Donostian eta Pasaian, *Soilik herriak salba dezake herria* aldarria desitxuratu eta horren pean Iruñean egindako elkarretaratze faxista, pintaketa xenofobo faxistak Hondarribian, eta sare sozialetan oldarraldi erreakzionarioa nonahi.

Donostian argi geratu zen instituzioen jarrera Kaleko Afari Solidarioak debekatu eta segurtasunaren izenean manifestazioan atera zirenak babestu zituztenean. EHUK behartuta kanporatu zuen mezu matxista eta faxistak zabaltzen zituen irakaslea, eta zer esanik ez etxebizitzaren arazoa jasanezina bihurtu den honetan han eta hemen hedatzen hasi diren desokupazio enpresen ideologiaren eta jarduteko moduaren inguruan.

### Bide guztiak itxi arrazakeriari

Faxismoaren adierazpen horien guztien atzean eskuineko alderdiak, eskuin muturra eta talde faxistak daude, krisi egoerak probesten dituztenak segurtasunaren izenean mezu arrazista eta xenofoboak hedatzeko. Gure kale eta auzoetan faxismoari zirrikitu guztiak ixteko ezinbestekoa da langileon arteko elkartasuna eta antolakuntza sustatzea, gorroto mezuei aurre egin eta bazterkeriaren eta arrazakeriaren kontrako jarrera irmoa defendatzea.

Hala, San Inazioko zenbait auzokide hasi dira ideia horiek zabaltzeko lanean, *Ez erori arra-*

*zakeriaren zuloan lelopean*. "Ideia antifaxistak, arrazakeriaren kontrakoak eta integrazioaren aldekoak" sustatzearen alde agertu dira, eta egoerari irtenbidea emateko arreta arazoaren erroan jartzearen garrantzia azpimarratu dute, hots, "pobrezian eta hura sortzen duen sistema". Hala, etorkinen kolektiboa etsaitzat hartu beharrean, auzoko dinamiketan integratu, konfiantzazko harremanak sortu eta elkarrekin "langile guztion bizi baldintzak hobetzeko" borrokatzeko prestutasuna agertu dute, "ez bakarrik hemen jaio garenonak, baizik eta pobrezia-rengandik ihesi datozen etorkinenak ere bai".

Antzeko dinamika abiarazi zuten iragan uztailean Algortako bizilagunek: *Ez Irentsi Arrazakeriaren Amua* plataforma aurkeztu zuten jarrera arrazisten aurka antolatzeko. Aurkezpenean aldarrikatu zuten "sektore zapalduetik diskriminaziorik egon ez dadin eta guztiok bizi-baldintza berdinak izan ditzagun" borrokatuko zirela eta argi utzi zuten "langileok pairatzen ditugun eta pertsona migratu eta arrazializatuek are modu bortitzagoan bizi dituzten miseriazko bizi-baldintzak borrokatzea" beste irtenbiderik ez dagoela.

Laburbilduz, auzoan arrazakeriari eta faxismoari ate guztiak ixteko ezinbestekoa da auzokideon antolakuntza formak gorroto ideietatik aldentzea eta guztion bizi-baldintzak hobetzeko elkarlana sustatzea.

# berbetan

IMANOL OROKIETArekin

SOZIOLOGIAN GRADUATUA

## “Ez diot Zorrotzaurre

*“Gentrifikazio” terminoa 60.hamarkadan hasi zen erabiltzen Londresen, Ruth Glass soziologa ingelesaren eskutik. Hiria-aren iparraldeko etxebizitzetan eraldaketak eman ziren; tradizionalki langile klasekoenak ziren etxebizitzak, bat-batean klase ertain-altuek okupatu zituzten, birbalorizatu eta modan jarri baitziren. Imanolek gaurkoan, gurera ekarri du “gentrifkazio” hori bere Gradu Amaierako Lanaren bitartez. Bertan, hirietako zenbait gunetan gertatzen den gentrifkazio prozesuaren pasaia-aldaketaren alderdiaren inguruan mintzo da, Deustuko Erriberan gertatzen ari den gentrikifazioaren inguruan zehazki. Gerora kartografietara itzulitako Erriberako paisaia jaso eta Deustuko Erriberako Paisaia-Mapa ondu du bere lanean.*





Testua: PREST! Aldizkaria

Argazkiak: Ecuador Etxea

# deitu. Erribera da”

## **Nondik dator Deustuko Erriberako paisaia mapatik abiatutako GRALa egitearen ideia?**

Batez ere hurbiltasunetik dator. Ni deustuarra naiz, Ibarrekolandan bizi naiz eta San Inazion egin dut bizitza. Sani eta Erriberaren artean dagoen konexioa urak banatzen du baina ura bera da alde biek partekatzen duten hori. Nirea den zer-bait bezala hartu dezakedan lurralde bat da nahiz eta ez izan horrela, konexio bat daukat eta beti berezia iruditu zait.

Gentrifikazioaz informatzen hasi nintzeanean konturatu nintzen Erriberan gertatzen ari zen horren garrantziaz eta interesari handitu zitzaidan.

## **Zein metodologia erabili duzu ikerketa aurreraren eramateko?**

Hasieran buruan nituen ideia horiek lurrera ekartzea kostatu zitzaidan. Buruan gentrifikazioaren kontzeptua neukan bueltaka baina puntu zehatz batera lurreratu behar nuen. Gentrifikazioaren ezaugarrietako bat aldaketa paisajistikoa izanda, horretan murgildu nintzen. Perfil zehatz batzuk aukeratu nituen; batetik auzokideak eta bertako ikasleak, bestetik argazkilaria bat... Perfil horiekin paseo bat emateko geratu nintzen; “auzotar bezala eta zure perfiletik erakutsi auzoa, nik ezagutuko ez banu bezala” esaten nien. Paseo hori Wikilocen erregistratu eta Emilio Varela arkitektoarekin elkarlanean paseo bakoitzeko mapa

bat osatu nuen.

## **Zein esango zenuke dela lanaren helburua?**

Paisaiaren eta maparen definizioak kontrajarriz mapa paisajistikoa bat egitea izan da nire intentzioa. Paisaia hautematen dugun oro bezala ulertuta, oroitzapen eta bizipenetan gordeta daukagun oro bezala, paisaia mapa bat osatu dut. Kartografia bat paisaiaren alderdi guzti horiek jasotzen dituen. Paisaia osotasun horretan jasotzen saiatu naiz.

## **Mapa erakutsi diguzu. Azalduko maparen nondik norakoak?**

Polita da ikustea bakoitzak eskala bat daukala. Paisaia bakoitzaren eskala propioa da eta mapa honek ez dauka eskalarik. Partaide bezain beste eskala ditu. Mapari erreparatzen badiozu desastre bat da eta polita aldiberean. Bakoitzak bere eskala duela erakusten dizu. Guztiok eskala berean egongo bagina irudiak zentzua izango luke baina kasu honetan ez dauka; zirriborro bat da.

## **Ura aipatu duzu lanean zehar. Zein da Erriberaren eta uraren arteko harremana?**

Urak bere agentzia eta bere indarra dauka. Uraren bitartez egin da azkenengo mendean egin den aldaketa guzti hori. Lehen bazen Erribera bat, uraren bitartez penintsula batean bilakatu zena eta ura-

**“Gentrifikazioaren ezaugarrietako bat aldaketa paisajistikoa izanda, horretan murgildu nintzen”**



# berbetan

IMANOL OROKIETArekin

## ▷ ▷ SAKONEAN

### Lan honek gogoak piztu dizkizu aurrerantzean ikerketan jarraitzeko?

TFMa(Master Amaierako Lana) bertan egiten saiatuko naiz. Masterra “Partaidetza eta Komunitate garapena” da eta metodologiari dagokionez zerbait kolektiboagoa egin beharko nuke. Auzotarrek egin dezaketen plan urbanistiko bat izan daiteke adibidez. Hortik eramaten saiatuko naiz baina ikusteke dago oraindik...

Gertatzen ari dena bizirik dago eta beraz, gaiak mami pila bat du. Aldarrikapen bezala ere interesgarria iruditzen zait.

### Lana ondu ostean ze aldarrikapen egingo zenuke?

Galdera hau auzotarrek erantzun beharko lukete baina lana abiapuntu hartuta esango nuke badagoela herri bat, herri izaera duena eta bizirik dagoena. Hor daudela, izaera propioa dutela eta batez ere, indarra.



ren bitartez baita, irla bilakatu dute. Urak auzoa hartzen du marea biziak daudenean, auzoa geldiarazten du alegia. Petrila bezalako elementua uretatik banandu eta babesten zaituen dispositibo bat da baina aldi berean urarekin kontaktuan mantentzen zaitu; tabernan zerbait hartzen duzunean petrilean ezartzen zara.

### Urak eragiten dituen aldaketek gain, badaude beste mota bateko aldaketak...

Bai. Aldaketak eta berrikuntzak. Mondragon Unibertsitate alboan markesina bat dago, Digipen- Mondragon plaza hori berriztuta dago... berritu dezatela futbol zelaia, jarri ditzatela azpiegiturak auzokideak bizi diren zonaldeetan. “El dinero va a donde esta el dinero” eta kasu honetan asko nabaritzen da. Kanpotik datozenak auzoa zeharkatzen dute, sarrera bat eta irteera dituzte eta bidea jarraian egin ahal baldin badute hobe. Adibidez Emilio Varelak *La Ciu-*



*dad Inmóvil* egin zuenean bide sinuosoak bilatzen zituen, frenatzera behartuko zaituztenak paisaia osoa hautematzeko. Badago haustura bat eta haustura hori areagotu egingo da.

### **Zein ondorio atera dituzu?**

Auzokide batek nire lanerako gakoa izan den zerbait esan zidan; Haustura identifikatzen. Eraikitze prozesuan dagoen eraikin bat seinatu zidan esanez bertan, momentu honetan Erriberan bizi diren bezain beste biztanle bizi direla. Metropoli edo hiri batean bilakatuko da Erribera. Talka bat izango da eta izaten ari da. Auzokideek ahal dutena egingo dute. Badago auzo komunitate bat baina oso zaila da gertatzen ari denaren kontra egitea. Bizinahi bota nahi badute adibidez, botako dute. Ondare industrial bezala erregistratuta dauden eraikinak botatzen ari dira, bota ezin direnak... Nahi dutena egiten ari dira eta oso gutxi dira horren kontrako indarra egiten ari direnak.

Ondorio gisa esan dezaket nire kezka sakondu egin dela. Hain ikuspuntu desberdinal alderatzerakoan gehiago ezagutu dut aldaketa, auzokideek ezagutzen dutena. 82 urteko gizonak bere garaiko Erribera aurkeztu zidan eta gazteak, etorkizuna eta zer datorren. Beldurretik erakutsi zidan Deustuko Erribera.

Polita izan da. Ikertzaile, pseudo-ikertzaile palestratik jaitsi eta horizontaltasun hori lortzea polita izan da. Haiek gidatu ninduten gainera. Horra arkitektura ikasleak hurbiltzen dira eta soziologo bat hurbildu izana arraroa izan da baina polita.

### **Arduratik egindako zerbait dela esango zenuke?**

Ez da ikerketa lan bat soilik. Akademikoa da Gradu Amaierako Lan bat delako baina auzotarren ahotsa bilatzen nuen gehien bat. Hirigintza "agresibo" gisa identifikatzen ditut ematen ari diren eta emango diren obrak eta hori bada paisaia. Badago aldarrikapena nire lanean bai. Ez diot Zorrotzaurre deitu, Erribera da. Interesa aldarrikapen grinetik datorrela esango nuke.

### **Bizinahin aurkeztuko duzu zure lana...**

Itxaroten nago data aldetik adostasun batera heltzea ezinezkoa izan zaigulako orainarte baina horretan nabil. Prozesuaren parte da produktua itzultzea bere lekura. Izan ere mapa bat inprimatu dut Erriberan uzteko, gutxienez kopia bat hor egon behar dela uste dut. Jendearekin ikerketa bat egiten duzunean itzuli egin behar diozu. Haien denbora eskaini dizute. Ikusteko polita izango da beraz bai, Bizinahin aurkeztuko dut nire lana urtarrilean.

**“Metropoli edo hiri batean bilakatuko da Erribera. Talka bat izango da eta izaten ari da”**



KULTURA

## Markel Montaña Lekuek liburua argitaratu du

Markel Montaña Lekuek Bilboko udal-hilerriko faunaren inguruko liburua argitaratu du Bilbao Zerbitzuak bidez. San Inazioo biologo gaztea da Markel eta liburua gaztelaniaz eta euskaraz publikatu dute.

Bilboko udal-hilerria 1902ko apirilaren 27an inaguratu zen eta Bilboko Kultura-ondarearen zati garrantzitsu bat da. Bilboko Udalak 2010ean Bilbao Zerbitzuak erakundea sortu zuen hilerriren eta merkatueganako udal-eskumena kudeatzeko.



URTEURRENAK

## Deustuko Herriko Tabernak 37. urteurrena ospatuko du

Abenduaren 12, 13 eta 14an Deustuko Herriko Tabernaren 37. urteak ospatuko dira. Aritz Ibarra ilustratzailearen *Aldaxka pozoituak* komikiaren aurkezpena, ardo dastaketa, bazkaria, kontzertu akustikoa JOXUNEren eskutik eta beste hainbeste eskaintzaz gozatzeko aukera eskainiko ditu Deustuko Herriko Tabernak.


37 urte zabalik, 37 urte komunitatea sortzen, elkarlanean, babesgune, eskola eta etxe izaten... nola ez dugu ospatuko?



KULTURA

## Gorka Martinek Bilbao 1874 liburua kaleratu du

2.Gorka Martinek Bilbao 1874 liburua kaleratu du (gaztelaniaz) Bilboko setio karlistaren inguruan. Arangoitiko den arkeologoak egun krudelen eta Europak garai hartan arnasten zuen giro politikoaren xehetasunak berreraiki ditu dokumentazio lan batera ekarriz. 150 urte igaro dira eta Bilbok, barkatu egin du baina ezin ahaztu historian gertatutako setiorik erabakigarrienetako baten bonbek eragindako mina.












KIROLA

## Herri Krosa Deustutik pasa da berriro ere

Bilboko Herri Krosaren 35.edizioa igandean, azaroaren 17an ospatu zen. Aurtengo edizioan korrikalariak ez ziren zurigorrien futbol zelaiaren barrutik ibili. Izan ere Deiak babestutako lasterketa bere ohiko ibilbidera itzuli da eta hori horrela, aurtengo Herri Krosa Deustun izan dugu berriro ere. Agirre Lehendakariaren etorbidea hartu zuten korrikalariak hain zuzen ere.

35. edizio honetan betiko filosofiari etsi dio Herri Krosak; sailkapenak eta lehiaketak ukatuz, parte-hartzaile guztiak irabazle bihurtzen ditu lasterketak.





Tellaetxeko etxea (gaur egun San Inazio dena), modernoa garai hartarako. Urrutiak utzitako argazkia.

Urtea: 1951

Txema Luzuriaga

## *Bilboko lehen asmo anexionistak*

XIX mende hasieran, Bilbok berriro ekin zion bere hedapena handitzeko ahaleginari. 1821ean zehazki, jurisdikzioa zabaltzea eskatu zuen eta 1845ean, Gobernazio Ministerioak, Errege agindu bidez, Deustun,

Abandon eta Begoñan hiribilduearen perimetroa zabaltzeko mugen zerrenda egiteko agindua bota zuen. Eskaera hau 1846 eta 1847 urteetan berritu zen, 1890. Urtean Abandoren anexioa lortu ondoren ere, hiribilduak bere jurisdikzioaren hedadura oraindik ere nahikoa zela kontsideratzen jarraitu zuen.

XX. Mendera iritsi eta bide horretatik jarraituz, 1911n Bilboko Udalak Deustu eta Begoñaren anexio espedienteari hasiera eman zion. Sei urte beranduago, 1917an, Bilboko Udalak Gobernuari eskatu zion elizate guzti horiek batzeko eta hiru urte pasata, instantzia bat aurkeztu zitzaion Gobernazio Ministroari, anexioari buruzko Errege Dekretua argitaratzeko eskatuz, horrek espedientearen hasiera formala ekarriz.

Bizkaiko Jaurerriaren barruan, Lur Lauaren eta Hiribilduaren arteko harremanak beti izan ziren tentsiodunak. Elizateak Bizkaiko Foruan jasotako erregimen orokorraren menpe egon ziren bitartean.

Guztien artean, Bilboko Hiria izan zen Jaurerriarekin harreman tirabiratsuenak izan zituenena. Ia etengabe, inguruko Elizateekin gatazkan egon zen, Deustukoarekin adibidez.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

**blb:**

BILBOTARRON  
ALDIZKARIA

BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.  
Ramon y Cajal 42, behea  
48014, Deustua  
admnrz.blb@gmail.com | 944471042

**YVES ROCHER**  
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



**ATXURI  
TABERNA**

Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

Iragar zaitez

**Prest!**-en


tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com



**Alonso  
Pertsianak**  
Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com

**Optica  
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun  
**Tintorería  
La Flor**  
Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29  
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
euskara zerbitzua

**Probatu  
herrizki.eus**

ANDROID APP  
Google play

Apple App Store

ERROZ JARRABAZIA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu  
aek ■ euskaltea**

Matrikula zaitez! **aek**

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO  
HORTZ KLINIKA**

**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia

PADI  
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

**Sabin  
Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS  
KM  
CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23

# Zein da zinemarekiko duzun kontsumoa?



## Maialen Deustu

Orain dela bi aste joan nintzen zinemara azkeneko aldiz *La infiltrada* ikustera. Normalean ez noa askotan baina azkenaldian hirutan joan naiz, *La infiltradaz* gain *El 47* eta *La virgen roja* ikustera, oso gomendagarriak. Gehiago joatea gustatuko litzaidake, ez da garestia eta entretenitzeko eta kultura kontsumitzeko aukera oso ona da.



## Mikel Uribarri

Duela urte bete joan nintzen azken aldiz zinemara Oppenheimer eta Barbie ikustera. Gustatuko litzaidakena baino gutxiago joaten naiz nahiz eta beti gaude horren gogoekin. Pelikula on bat disfrutatzea eta hara joateak suposatzen duen esperientzia ditut gustoko.



## Jon Indautxu

Orain dela hilabete joan nintzen azkeneko aldiz zinemara *La virgen roja* ikustera. Gutxitan noa zinemara, urtean hiruzpalau aldiz edo. Egia esan, azkenaldian ez da egon atentzioa biziki eman didan ekoizpenik. Gustatuko litzaidake gehiago joatea, baina horretarako beharrezkoak dira film onak eta euskarazkoak.



## Karmelo Deustu

Duela urte 1 gutxi gorabehera izan zen nire azken aldia zinemara. *20.000 especies de abejas* ikustera joan nintzen. Egia da oso gutxitan joaten naizela eta gehiago joatea gustatuko litzaidakeela. Gainera, normalean ohituta nagoen planekin konparatuz ezberdina da, eta hori gustatzen zait.



## Naia Deustu

Zinemara oso gutxitan joaten naiz, eta gehiago joatea gustatuko litzaidake. Azkeneko aldiz *La infiltrada* ikustera orain dela bi aste joan. Zinemara joatearen alderik onena niretzat dap pelikula nahita nahiez ikusten dudala, ez etxean bezala. Zinemara joatearen plana orokorrean asko gustatzen zait.



## Jone Deustu

*Nina* ikusi nuen azken aldiz zinemara, duela nahikotxo, aurreko maiatzean. Gutxitan joaten naiz. Lehen gehiagotan joaten nintzen, baina gutxitan hala ere, *El día del espectador* eta *La fiesta del cine* bezalako egunak aprobetxatzen nituen joateko. Gehiago joatea gustatuko litzaidake baina askotan edo oso berandu edo oso goiz izaten dira pelikulak, beste askotan ez dago ikusi nahi dudana ezer edo ez daukat norekin joan eta ez naiz bakarrik joatera ausartzen.



# harkua bete herna

>> KULTURA

Testua: Antxon Agirre

## AZOKA USAINA

Azaroan zehar, udazken kolore artean gaude-la, zerbait berezia somatzen hasten da Euskal Herrian. Usain berezi bat. Labea bero-bero eta lapikoa borborka dagoela nabari da. Durangoko Azoka parez pare dagoen sentazioaz ari naiz. Abendu hasieran irekiko ditu ateak euskal kulturaren bihotz taupada erraldoiak. Baina, azaroan arteriak odoltzen hasten direla bihotzerantz ohartzen gara, euskal sortzaileak beraien proposamen artistikoen berri eta lehen aurrerapenak publiko egiten hasiak direlako. Eta kulturzaleok, hitzordu horretarako ilusio handiz lan horien zerranda luze bat osatzen ibiltzen gara.

“Hartu eta eman” dio Nekar taldearen abesti ezagunak eta bide beretik izendatu dutela aurtengo Azokaren leloa agerikoa da: *“Hartzea ematea da”*. Eta Durango aste horretan zerbait bada, bi aditz horiek dira bete-betean. Sortzaileek asko ematen digute, urte guztirako uzta ederra, sormenez beteriko otzara magiko batekin itzultzen gara etxera. Eta guk, ordea, esker-ona, maitasuna, egindakoari balioa eta sorkuntza lanbide horri duintasuna emanez itzultzen dugu. Hau da, bi aldeok hartzen dugu zerbait ematearekin batera. Truke ariketa da hau.

Azaroan zehar, instagramen zaudela ohikoa da musika taldeen perfilek single abestia edo disko osoa publiko egiteko horrelakoak igotzea: *“Adi! 20:00etan YouTubean eta 00:00etan Spotify plataforman!”* eta seguraski aurreko egunetan kanpaina komunikatibo batekin berotu izana giroa. Olatz Salvador, Sune, Bengo, Merina Gris, Olaia Intziarte, La Txama, Toc, Janus Lester eta zerranda luze batez ari naiz. Nik zinez jakin nahiko nuke ea ados ipintzen diren nork aterako duen singlea asteazkenean, zein beste musikarik ostegunean eta zein taldek ostiralean. Honek antolaketa bat du atzean seguru.

Onartu beharra daukat azoka garaiak hunkitu egiten nauela, entzundako abesti berriak ezagutu eta horiekin konektatzea prozesu berezizat daukat. Euskal kulturaren arnasmune ikaragarria da azoka, sortzen den laba guztiaren epizentroa. Horretaz gain, egungo hipermodernitate garaian kultura nola kontsumitzen dugun hausnartzeko adibide ere izan daiteke.

Euskal komunitate gutxietsi eta zapaldu honek behar duen plaza da Durangoko Azoka. Euskara ardatz, gozamenean oinarritu eta herri gogo baten bulkada ezinbestekoa.





# sarekada



DEUSTU Kendu ziguten herria

“DEUSTU Kendu ziguten herria”, Txema Luzuriaga eta Hektor Ortégaren liburua, salgai honako puntu hauetan:

Deustuko Liburudenda

Tu Kiosko

Papeleria Guimera

Etxean Liburudenda

Arangoiti okindegia

Erribera Taberna

## ZAINTZEKO ETA ZAINDUAN

*2023ko azaroaren 30ean zaintza-greba  
“eskubide unibertsal” gisa aitortzeko esk  
feministak eta hainbat eragilek eta antolatza  
eta merkantilizazioaren aurka zaintza  
aldarrikatzeko eg*

Testua eta argazkiak: PREST! eta PARE

Pasa den apirilean Denon Bizitzak Erdigunean plataformak salatu zuen ez zela “ezer aldatu” azaroan zaintza sistema publiko baten aldeko greba feminista orokorra egin zenetik. Ez ziren ontzat eman Jaurlaritzak eta Nafarroak zaintza sistemari buruz aurkeztutako itunak eta Mugimendu Feministak eta beste eragile sozio-sindikak batzuek salatu zuten erakundeek eta arduradun-politikoek zaintza-sistema publikoaren aldarrikapenei entzungor egiten jarraitzen zutela. Aurtengoa, 2024ko azaroaren 30ekoa, Greba Feminista Orokorra izan da. Ez da beraz, lehen aldia izan feminismoak erakutsi duena badela gai, kaleak hartu, gizartearen jarduna bera paralizatu, eta horren sostengu diren sineskera eta arauak auzitan ipintzeko. Bigarren aldia izan da, ordea, greba feminista hori orokorra izan dena.

Horretan ari da PARE, Deustuko Gazte Talde Feminista, baina aurretik eta 30ekoa bezain garrantzitsu, Azaroak 25eko deialdiaren trazu nagusiak marraztu dituzte:

### AZAROAK 25 - DENOK KALERA!

Gaur azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da. PAREtik, sistema zisheteropatriarkal kapitalista honek gure aurka darabilen indarkeria oro gaitzetsi eta bortxaketaren kulturarekin amaitzeko beharra azpimarratu nahi dugu. Ezin dugu biolentzia era isolatuan ulertu, sistema oso batek baimentzen duen indarkeria gisa baizik.

Indarkeria matxistak hamaika aurpegi dituen bezala, hamaika izan dira aurten ere, gizon ez izanagatik jasan behar izan ditugun erasoak. Azpimarratu nahi dugu geroz eta agerikoagoak direla gizonek, boteretik, banaka edo taldean, elkarren arteko konplizitatearekin eta inpuniate osoz egikaritzen dituzten erasoak. Egunerokoa, kanean, kuadrillan, jai giroan, eskolan, lantokian, kiroldegian, tabernan, sare sozialetan, liburutegian... Nahikoa da! Guk argi daukagu ez dagoela erasotzaile isolaturik, gizonek gizonei biolentziaz jarduteko legitimazioa ematen dieten aukerak baino.

Gazte feministok argi dugu, bada garaia guzti honekin amaitzeko, eraso hauek salatu

Dramaturgia eta zuzendaritza  
IÑIGO COBO

Antzezleak

UNAI IZQUIERDO  
JOSU IRIARTE  
ITXASO GIL  
ITXASO QUINTANA  
MARKEL VÁZQUEZ  
DIEGO PÉREZ

P6

esta tarde en

MENTXAKA

AZAROAREN 09tik ABENDUAREN 08ra

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

# KIZATEKO, BIGARRENEZ

*bat izan zen Euskal Herrian. Zaintza  
atu zuten Euskal Herriko mugimendu  
ileen esanetan, zaintzaren pribatizazioaren  
-sistema publikoa eta komunitarioa  
un bat izan zen.*

eta hauen aurkako posizio irmoa hartzeko. Erantzuleak seinatu eta aliatu diren horiei duten ardura har dezaten eskatzeko. Ondokoa, laguna, ezaguna, klasekidea, irakaslea, lankidea kuestionatu, seinatu eta konpromisoak exigitzeko. Konponbide ez zareten bitartean, arazoaren parte izaten jarraitzen duzue!

Bestalde, begibistakoa da, azken urteetan sistema arrakalazten gabiltzala, indarkeria sinbolikoa agerian utziz eta eraso orori kolektiboki erantzunez. Eta bide honetan, indarkeria matxista desnaturalizatu dugun honetan, medioek errelato patriarkal eta arrazistak zabaltzen jarraitzen dute. Komunikabideak, errelatoa desitxuratzeko eta arazoaren fokoa aldatzeko sistemaren funtsezko herraienta dira. Beraz, hauek politizatu eta salatzea dagokigu.

Honengatik guztiagatik, gaur, Deustuko, Bilboko eta Euskal Herriko kaleak hartzea dagokigu. Sistema darabilen indarkeriaren eta erasoen aurrean ozen aldarrikatuko dugu: “Bortxaketa kultura honen konplize zarete, baina lotsa alde aldatzera doa!” Guk indarkeriarik gabeko bizitzaren alde borrokan jarraituko dugu, autodefentsa feminista arma dugula. Horretarako, arratsaldeko 18:30ean Done Petri enparantzan abiatuko dugun zutabearen parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Bertan itxarongo zaituztegu. Gora borroka feminista !





**harkua bete herba**

>>NUTRIZIOA

# DIETAK? EZ. BIZITZAK TRANSFORMATZEN DITUGU

- AZAROAK 24: DIETISTA NUTRIZIONISTAREN MUNDUKO EGUNA -

Testua: Ainhoa Maiztegi

2022ko martxotik izan gara Prest! Aldizkarian jarraiki nutrizioaren gai ezberdinak jorratzen. Orri hauetan zehar ziklo menstrualaren inguruko asaldura normalizatuak jarri ditugu mahaian, baita elikadurarekin daukagun harremana osasungarria den ala hobetzeke daukagun identifikatzeko pausoak, edota kirol hidratazioaren inguruko gakoak zeintzuk diren. Era berean, osasunarekin lotura daukaten helburuen estrukturaren ezaugarriak ezagutu eta egunerokotasunean proteinen ekarpena zelan gailendu ahal dugun erakutsi dugu. Hainbat mito deuseztu ditugu azken urteetan ere eta kalean protagonista bilakatu diren terminoen analisia burutu, SIBO-a besteak beste.

Gai hauen heterogenizitateak nutrizioa dieten inposaketatik, debekatutako elikagai listetatik, edota baskularen zenbakiaren gutxitzetik haratago doala frogatzen du; kontzienteago, antolatuago eta osasuntsuago (osasunaren pilare denak barnebilduz: osasun emozionala, osasun fisikoa eta osasun soziala) bizitzeko bide bat da. Izan ere, laguntza bide bakoitzaren atzean pertsonen osotasuna dago; bere errutinak, bere kontextu bakarra, bere emozioak eta bere bizipenak. Orduan, zein dira gure ekintzen esparru ezberdinak?

Gure lanaren zati garrantzitsua prebentzioan datza (nahiz eta osasungintza publikoaren parte izateko aukera ez izan oraindik). Prebenitzea, tratatzea bezain garrantzitsua da. Nutrizionistok, giza fisiologian, metabolismoan eta biologian adituak gara eta osasunaren beste arloko espezialistekin bat egiten dugu pertsonen tratamendu-plangintza integral bat eraikitzeko. Nire kasuan, ginekologiako kide, zoru pelbikoko fisioterapeutak, psikologoak, entrenatzaileak, digestiboak eta trauma fisioak dira espezialista horiek.

Alde klinikoa alde batera utzita, bizitzak antolatzen laguntzen dugu, estresaren eta denbora faltaren kontra doazen pertsonen kasuetan (kontsultan ikusten dudan %95en egoera, tamalez) irtenbide praktikokoak aurkituz. Estrategia nutrizionalak diseinatzen ditugu, errealitate indibidualetara egokitzen direnak, otorduen menuen antolaketatik hasi, gose eta ase sentsazioak identifikatzetik pasa eta errezeta nutritibo eta gozoak planteatzera arte.

Hori guztia, noski, janaria energia iturri izan ez ezik, emozioekin lotura estua daukala jakinda eta filosofia hori landuz (zoritarrez esaldi hau aipatu behar izan dut, osasun arloko unibertsitate-titulua ez baitizu pro-



## harkua bete herba


fesional sanitario zaren etiketa eisleitzen eta). Hortaz aparte, gogoko plater bat partekatzen sentitzen dugun plazerretik, emozio ezatsegina bizi ari garenean geure garunak elikagai batzuk jatera eramaten gaituen fisiologia ulertaraztearen heziketa burutzen dugu, eta osasun profesional gisa, elikadurarekiko harreman hori enpatiatik eta norbanako-ezagutzatik lantzen laguntzen dugu, damutzea ez daiten izan elikadura ohiturekin edo hautuekin lotura daukan kontzeptu bat.

Egun hau ospatzea, nutrizioa “dieta egitea” baino gehiago dela ospatzea da. Prebenitza, heztea, antolatzea eta, batez ere, pertsonak hobeto bizitzen laguntzea da, bakoitzaren kontextua erdigunean jarrita. Elikagai aukeraketa bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako, eta gu hemen istorio hori autozaintzaz elkarrekin idazteko gaudelako .

Zeinen polita izango litzateke kargu publikoek ere geure lanbidea horrela ikusiko balute eta nutrizionistok osasungintza publikoaren plantillaren parte izatera gonbidatuko bagintuzten, non espezialista bakoitzak bere esparruan zentratu eta besteak, beste profesional sanitarioetan delegatzea.



**Ainhoa Maiztegi**

 @ainhoamaiztegi.nutricion



### Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!



Ramon y Cajal, 24

DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaren atzean

Zatoz gure eskaintza berria probatzera!



Astelehena - Asteartea - Asteazkena  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 22:00

Osteguna - Ostirala  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 01:00

Larunbata  
18:00 - 22:00

@deustukoherrikotaberna

Ramon y Cajal 29 - DEUSTU

**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**JON INTXAURRAGA**

*Irakaslea*

## GABON ZUTABE BAT

Pasa den astean jan nuen lehen polborroia. Urritik salgai daude, turroiekin batera. Kaleko argiak piztuta daude eta David Bisbalen Gabon kanta zerrenda Spotifyn entzungai. Beraz, bai, hauxe da Gabon zutabe bat, Mariah Carey (*All I Want In Christmas Is You*) zein The Pogues (*Fairytale of NW*) gustuko duenarentzat aproposa (*Ole Olentzero!*).

Gabon luzeak gustuko badituzu, *Love Actually* (Curtis, 2003) da zure pelikula, Abendu egutegiarekin batera hasten baita. Bertan pertsonaia askoren bizitzak katramilatzen (ze berba polita!) dira eta mezu indartsu bat dakar: munduak iluna eta gorrotoz beteta dirudien arren, maitasuna edonon dago, eta bilatuz gero, topatuko duzu. Bada, zer dira Gabonak, ez bada maite dituzunekin egoteko (beste) aukera bat?

Gabon klasikoak faltan badituzu, elurra, hotza, Justizia Soziala etab., *It's a Wonderful Life* (Capra, 1946) ikusi beharko duzu. Zer gertatuko litzateke jaio izan ez banintz? Hori erakutsiko dio Clarence aingeru guardakoak (Henry Travers) George Baileyri (James Stewart) erreka jotakoan; *Sols el poble salva al poble* II. Munduko Gerraostean.

*Gabon Kanta Bat* (Dickens, 1843) liburuaren bertsio librea ei da, Armiarman euskaraz irakurgai dagoena. Mamuen bisitek Schroodgeri zer pentsa emango diote, eta irakasle bazara, ikasleak ezagutzeko baliabide bat. Izan ere, galdetuz gero zer kontatu dien Azken Mamuak, idatziko baitizute zelan ikusten duten euren burua etorkizunean.

Eguberri zoriontsuak guztioi! (Gorroto dituztenei ere bai!)

## Bilboko udala zer

*Doinua: 14 heriotzena*



**PERU IRASTORZA SANTXO**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Bilboko udala zer  
udal lotsabako,  
Erahilketa sailkatuz  
Natural gisako.  
Argitu behar dela?  
Argitu beharko.  
Hitzok darabilzkite,  
Holako ta halako,  
Iñigo hil ez dela  
Badakitelako.

“Gogora” (!) hala deitzeko  
Behar da gibela,  
Jakinda historia  
Aldatzen duela.  
Lasai egon gaitzen,  
Haiek ez bezela,  
Gure iragan zaharrak  
Baitio honela:  
Memoria oneko  
Herria garela.

# Abenduak 3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Bilbao


## BILBO EUSKARAREN HIRIBURUA 1876-2024

## ERAKUSKETA IBILTARIA



### ♀ BILBOKO UDALTEGIETAN

URRIA | 15-30 | BEGOÑA  
AZAROA | 4-14 | SAN INAZIO - IBARREKOLANDA  
AZAROA | 18-22 | ERREKALDE  
AZAROA | 26-5 | LA BOLSA  
ABENDUA | 15-30 | CASTAÑOS  
URTARRILA | 3-16 | ABANDO  
URTARRILA | 20-30 | OTXARKOAGA  
OTSAILA | 3-14 | BASURTO



Labayru




EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

# DEUSTU

## Kendu ziguten herria

Txema Luzuriaga  
Hektor Ortega



Done Petri [San Pedro] eliza. 1910. 1874ko argazkarekin alderatzuz gero, harkurdea nabarmena da: Ramon y Cajaleko lehenengo eskeak, udaltxeko berria, frontoia, Talleres de Deusto lantegia... Baseriak, zeto badira, oraindik. Erdiarriko baseriak dira, elizatik Boticakazarrera jaisten zen bidearen alboan ardatzuta. Argazkia: Espainiako errepublika de la I. Irudiaren Kulturari.

Deustuko Udaltxekoa. 1899. Deustuko lehenengo udaltxekoa da, 1895en eraikia. Arriaren baxerik oinarritutako eraikuntza bat da, Blas de Otero kalean. (Etxearen, erakunde, eta erakundearen hiru). Deustuko lehenengo udaltxekoa, Deustuko Udaltxekoa, Deustuko Udaltxekoa, Argazkia: Txema Luzuriaga. Argazkia: Hektor Ortega.

88 Elexalde

Elexalde 89

### HEMEN SALGAI

**Deustuko Liburudenda.**  
Done Petri Plaza, 4

**Tu Kiosko.**  
Blas de Otero Kalea, 53

**Etxean Liburudenda.**  
Agirre Lehendakariaren  
Etorb., 135

**Arangoiti Okindegia**  
(Julio Gordillo)  
Gorbeia Kalea, 1

**Papelería Guimerá.**  
Agirre Lehendakariaren  
Etorb., 181

**Erribera Taberna.**  
Deustuko Erribera, 43

**15€**